Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

TicketBAI araba álava




# Bidalketa geroratuak – Aplikazioaren eskuliburua 1.1

# AURKIBIDEA


1 TICKETBAI-REN BIDALKETA GERORATUARI BURUZKO SARRERA ...... 3

2 NOLA SARTU APLIKAZIOAN ...... 4

2.1 Bidalketa norentzat egiten den aukeratzea ...... 4

3 ORRI NAGUSIA ...... 9

4 BIDALI BEHARREKO XML FITXATEGIAK HAUTATZEA ETA ALDEZ AURRETIK BALIDATZEA ...... 10

4.1 XML fitxategiak hautatzea ...... 10

4.2 Fitxategien edukiaren gutxieneko balidazioak ...... 11

5 FITXATEGIAK TICKETBAI-RA BIDALTZEA ...... 12

5.1 Bidalketa prozesua ...... 12

5.2 Bidalketaren emaitza ...... 12

# 1 TICKETBAI-REN BIDALKETA GERORATUARI BURUZKO SARRERA

*Bidalketa geroratuak* web aplikazio bat da, aukera ematen duena TicketBai-ko XML fitxategiak geroratuta bidaltzeko, fakturaren jaulkitzaileak egin zein haren borondatezko ordezkariak egin (2d maila). Bidalketa geroratua bi egoera berezitan bakarrik egin daiteke:

1. AFAri horretarako baimena eskatu bazaio, Interneterako sarbiderik ez izateagatik, inoiz ere ez eta operadore bakar batekin ere.
2. Faktura hartzaileak (bezeroak) egiten badu eta Arabako jaulkitzaileak (hornitzaileak) bidaltzen badu XML fitxategia Arabako Foru Aldundira, faktura onartu ondoren.

## 2 NOLA SARTU APLIKAZIOAN

Aplikaziora sartzean, Izenperen pantaila batera joaten da. Bertan, erabiltzaileak bere burua autentifikatu behar du. Ondorengo irudian sarbide aukerak daude ikusgai. Sartzeko moduei edo horiek lortzeko erari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo Izenperen webgunera: https://www.izenpe.eus.




Aukera bakoitza autentifikazio metodo bati dagokio.

- **BAKQ:** NANaren eta pasahitzaren bidez identifikatzeko metodoa.
- **Ziurtagiri digitalak:** Metodo hau erabiltzeko, ziurtagiri elektroniko bat eduki behar duzu.

### 2.1 Bidalketa norentzat egiten den aukeratzea

*Bidalketa geroratuak* aplikaziora honako hauek sar daitezke:

- fakturen jaulkitzailea bera,
- 2d mailako borondatezko ordezkari bat, jaulkitzailearen izenean jardungo duena,
- edo gestoria baten edo hirugarren baten izenean jarduten duen baimenduna, hau da, jaulkitzailearen borondatezko ordezkaria.

Bidalketa geroratuak aplikazioan sartu ondoren, konektatutako pertsonaren identifikazioa ikusiko duzu goiburuan. Pantaila honetan aukeratu beharko duzu norentzat egingo duzun bidalketa.

1. Fakturak zure izenean bidali nahi badituzu, «NIRETZAT» aukera sakatuz adierazi beharko duzu.




2. Borondatezko ordezkari gisa jardun nahi baduzu, eta faktura beste pertsona batentzat egin, «BESTE PERTSONA BATENTZAT (Borondatezko Ordezkaritza)» aukera sakatuz adierazi beharko duzu.




Ondoren, pantaila bat agertuko zaizu, non ordezkatu nahi duzun pertsonaren IFZ idatzi behar baituzu:




Ordezkatuaren NAN/IFZ sartu beharko duzu, eta *Jarraitu* botoia sakatzean, 2d mailako borondatezko ordezkaria zaren egiaztatuko da. Ordezkaritza baliozkoa bada, baieztapen pantaila bat agertuko da ordezkatutako erabiltzailearen informazioarekin. Baieztatzeko, sakatu *Jarraitu*.




Borondatezko ordezkaritzari buruzko informazioa: Borondatezko ordezkaritza (araba.eus)

3. Gestoria baten edo hirugarren baten baimendu gisa jardun nahi izanez gero, «BAIMENDU GISA (Gestoria edo hirugarren batena)» aukera sakatuz adierazi beharko duzu.




Pantaila bat agertuko da baimena eman dizun ordezkariaren eta ordezkatutako pertsonaren NAN/IFZk sartzeko:




Datu horiek sartu, eta *Jarraitu* botoia sakatu beharko duzu. Konektatutako erabiltzailea adierazitako ordezkariak baimendu duen egiaztatuko da, bai eta ordezkaria ordezkatuaren 2d mailako borondatezko ordezkaria den ere.

Egiaztapen hori egin ondoren, ordezkariaren eta ordezkatuaren datuak dituen baieztapen pantaila agertuko da.




Berretsi ondoren, aplikazioaren pantaila nagusira joaten da.




Konektatutako erabiltzailea borondatezko ordezkari edo baimendu gisa ari bada, informazio hori agertuko da aplikazioaren goiburuan.

*Amaitu ordezkaritza* edo *Amaitu* estekaren bidez, hasierako pantailara itzuliko zara, eta berriro aukeratu ahal izango duzu norentzat bidaliko duzun faktura.

# 3 ORRI NAGUSIA

Aplikazioak pantaila bakarra du, eta bertan fitxategiak hautatu, balidatu, eta TicketBai-ra bidaltzen dira.



# 4 BIDALI BEHARREKO XML FITXATEGIAK HAUTATZEA ETA ALDEZ AURRETIK BALIDATZEA




## 4.1 XML fitxategiak hautatzea

Sakatu pantaila nagusian agertzen den klip ikonoa, fitxategien arakatzailearen bidez hautatzeko TicketBai-ra bidali nahi dituzun XMLak. Hautaketa zuzendu nahi baduzu, klipa berriro sakatu eta fitxategiak berriro hautatu behar dituzu.

Behin fitxategiak hautatuta, fitxategien zerrenda agertuko da, aldaketa dataren arabera ordenatuta, eta *Igo* botoia aktibatuko da.




Hurrengo pausoa aukeratutako fitxategiak bidali aurretik balidatzea da.

## 4.2 Fitxategien edukiaren gutxieneko balidazioak

*Igo* botoia sakatuta, hautatutako fitxategiak balidatuko dira. Prozesu horretan, fitxategi mota (alta, baliogabetzea, Zuzendu…) eta fakturaren gutxieneko informazioa ateratzen dira fitxategiaren edukitik.




Balidazioaren emaitza hautatutako fitxategi adina lerro dituen taula batean erakusten da.

Gorriz agertzen diren lerroak fitxategi okerrei dagozkie; horiek ez dira TicketBai-rako bidalketan sartuko. Taularen eskuineko zutabean errorearen arrazoia adierazten da. Hauek dira errore nagusiak: fitxategiaren edukia atera ezin izatea, formatu okerra duelako; bidalketa mota zehaztu ezin izatea, edo konektatutako erabiltzaileak baimenik ez edukitzea bidalketa egiteko.




Taula horren azpian balidazioaren laburpen bat agertzen da: behar bezala balidatu diren fitxategiak eta erroredunak.

# 5 FITXATEGIAK TICKETBAI-RA BIDALTZEA

## 5.1 Bidalketa prozesua

Hautatutako fitxategiak balidatu ondoren, fitxategi zuzenik badago, *Bidali TicketBai-ra* botoia gaituko da, emaitzen taularen behealdean, eskuinean.

Botoi hori sakatuta, fitxategi zuzenak TicketBai zerbitzura bidaltzen hasten da, taulan agertzen diren ordena berean. Bidalketak segundo batzuk iraun dezake, prozesatu beharreko fitxategi kopuruaren arabera. Horregatik, prozesua amaitu arte itxaron behar da eta ezin da pantailatik atera, emaitza zein den ikusi ahal izateko.





TicketBaiko XML fitxategien bidalketa geroratuak

TicketBaiko XML fitxategien bidalketa geroratuak *
alta001.xml, alta002.xml, alta003.xml, Baliogabetzea.xml, Osatu.xml, Zuzendu.xml

| FITXATEGIA | JAULKITZE DATA-ORDUA | JAULKITZAILEA | SAILA | FAKTURA ZK. | ZENBATEKOA | MOTA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Osatu.xml | 2022/11/02 10:40:51 | 99999972C | diferido1 | diferido111 | | Osatu |
| Baliogabetzea.xml | 2022/11/02 10:59:51 | 99999972C FICTICIO ACTIVO NUEV CIUD | diferido1 | 1 | | Baliogabetzea |
| Zuzendu.xml | 2023/02/22 19:24:42 | 99999972C FICTICIO ACTIVO NUEVO UD | diferido1 | diferido1111 | 4.565,4 € | Faktura ez du hartzaileak jaulki |
| alta001.xml | 2023/02/23 07:58:35 | 99999972C Pruebas envio diferido | PRUDIFERIDO3 | 001 | 4.565,4 € | Alta |
| alta002.xml | 2023/02/27 12:26:27 | 99999972C Pruebas envio diferido | PRUDIFERIDO4 | 001 | 4.565,4 € | Alta |
| alta003.xml | 2023/02/27 12:26:37 | 99999990S Pruebas envio diferido | PRUDIFERIDO4 | 003 | 4.565,4 € | IFZ ez dator bat jaulkitzailearekin |

spinner.enviando.ficheros

1-6 6(e)tik

4 fitxategi zuzen    2 fitxategi oker

Bidali TicketBai-ra

## 5.2 Bidalketaren emaitza

Bidalketa amaitutakoan, TicketBAI-rako bidalketa prozesuaren laburpen taula agertuko da.

| FITXATEGIA | JAULKITZE DATA-ORDUA | JAULKITZAILEA | SAILA | FAKTURA ZK. | ZENBATEKOA | MOTA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Osatu.xml | 2022/11/02 10:40:51 | 99999972C | diferido1 | diferido111 | | Osatu |
| Baliogabetzea.xml | 2022/11/02 10:59:51 | 99999972C FICTICIO ACTIVO NUEVOCIUD | diferido1 | 1 | | Baliogabetzea |
| Zuzendu.xml | 2023/02/22 19:24:42 | 99999972C FICTICIO ACTIVO NUEVOCIUD | diferido1 | diferido1111 | 4.565,4 € | Faktura ez du hartzaileak jaulki |
| alta001.xml | 2023/02/23 07:58:35 | 99999972C Pruebas envio diferido | PRUDIFERIDO3 | 001 | 4.565,4 € | Alta |
| alta002.xml | 2023/02/27 12:26:27 | 99999972C Pruebas envio diferido | PRUDIFERIDO4 | 001 | 4.565,4 € | Alta |
| alta003.xml | 2023/02/27 12:26:37 | 99999990S Pruebas envio diferido | PRUDIFERIDO4 | 003 | 4.565,4 € | IFZ ez dator bat jaulkitzailearekin |

1-6 6(e)tik

4 fitxategi zuzen | 2 fitxategi oker

| FITXATEGIA | MOTA | JASOTZE DATA-ORDUA | TICKETBAI ID. | BIDALKETAREN EMAITZA | BALIDAZIOAREN EMAITZA |
|---|---|---|---|---|---|
| Osatu.xml | Osatu | 2023/02/27 12:28:49 | TBAI-99999972C-021122-M90n+udFz7+yu-068 | 00 Jasota | |
| Baliogabetzea.xml | Baliogabetzea | 2023/02/27 12:28:51 | TBAI-99999972C-281022-M90n+udFz7+yu-222 | 01 Ezetsia | 019-Alta fitxategia aldez aurretik baliogabetu da |
| Zuzendu.xml | Faktura ez du hartzaileak jaulki | | | | |
| alta001.xml | Alta | 2023/02/27 12:28:51 | TBAI-99999972C-030223-M90n+udFz7+yu-194 | 01 Ezetsia | 005-TicketBAIko alta fitxategia sisteman erregistratuta dago jada |
| alta002.xml | Alta | 2023/02/27 12:28:52 | TBAI-99999972C-030223-M90n+udFz7+yu-194 | 00 Jasota | 008-OHARRA: Errorea gertatu da sinadura egiaztatzean,009-OHARRA: Balizko errorea kateatzean,011-OHARRA: Errorea gertatu da TicketBAI softwarearen alta-inskripzioa egiaztatzean |
| alta003.xml | IFZ ez dator bat jaulkitzailearekin | | | | |

1-6 6(e)tik

2 ezetsita | 2 bidali gabe | 1 jaso dira, baina akatsak dituzte | 1 jaso dira, eta ez dute akatsik

Gorriz agertzen diren lerroak 4.2. ataleko balidazioak gainditu ez dituzten fitxategiei dagozkie edo bidalketa prozesuan ezetsi direnei. BALIDAZIOAREN EMAITZA zutabean, ezestearen arrazoia adierazten da. Zutabe horretan, TicketBai-n jaso diren baina erroreak dituzten fakturen abisuak ere agertzen dira.

Erabiltzaileak fitxategi bakoitzaren bidalketaren erantzunaren XMLa deskarga dezake, lerro bakoitzaren amaieran agertzen den gezia sakatuz.

Emaitza taularen azpian, laburpen bat agertzen da: TicketBai zerbitzuak ezetsi dituen fitxategien kopurua, hasierako balidazioak betetzen ez dituztelako bidali ez diren fitxategien kopurua eta TicketBai-n jaso diren fitxategien kopurua. TicketBAI-n jasotako fakturek erroreren bat izan dezakete; horregatik, laburpenean adierazten da zenbat fakturatan izan diren erroreak eta zenbatetan ez.

TicketBai-n jasotako fakturak hemen kontsultatu ahal izango dira: Bidalitako fakturak kontsultatzea (araba.eus).